

Jon Umerez

Joxe Azurmendiren gizaberea

Etxeko apaletan dauzkagun altxor gutxien artean, aparteko lekua dauka Joxe Azurmendiren 1975eko *Gizona abere hutsa da* (GAHD) liburuak. Haren eskuzabaltasunari esker, izan ere.

Gustatuko litzaidakeen baino harreman pertsonal txikiagoa izan nuen Joxerekin. Hala eta guztiz ere, izan ginen guztietan, zinezko estimua sentitu nuen (hurbiltzen zitzaion edonor horrela hartzea haren dohai-netako bat zela esango nuke). Komeni da zehaztea oñatiarra izateak ere laguntzen zidala harrera horretan, Arantzazun igarotako urteek eta ondoren sendotutako loturek txantxikuekiko sortzen zioten jaidura zela eta.

Berria-ko *Iruzur lezioak* izenburuko erreportaje batean (2008-11-30), zientziaren historian gertatutako kasu batzuk aztertzen ziren. Hurrengo astean, bulegora etorri eta nik bertan esandakoa aipatu zidan. Solasaldiaren harira, azaldu nion, GAHDen alerik lortzen ez nuen arren, bertan esaten zuena aztertzen ari nintzela, giza naturari buruzko eztabaida zabalean haren ekarpena txertatzeko asmoz. Handik gutxira, berriro bisita egin zidan liburuaren ale berri-berri batekin.

Izan ere, Azurmendiren obra osoan, giza naturari buruzko azterketa giltzarri da, funtsezko osagai bat haren mundu ikuskeran, eta landuko dituen auzi guztien oinarrian kokatzen dena. Haritz Azurmendik bere tesian ohartarazten gaituen bezala, gizaberearen kontzeptua haren pentsamenduaren oinarrizko kategoria bat da.

Giza naturarena ez da batere eztabaida erraza. Ezta berria ere, nahiz eta garaian garaiko askotariko adierazpideak erakutsi. Horietako nabarmenetako bat eta, agian, gogaikarrienetakoa ere, *nature vs nurture* aldaera da (natura vs hazkuntza edo, bestela, natura vs kultura gisa agertzen zaiguna).

Muturreko posizioen aurrean, gaur egun ohikoagoa da, diskurtsoan bederen, interakzionismoaren ereduren bat aldarrikatzea, hau da, organismoen ezaugarriak eta garapena (gizakiena barne) beti bi eratako faktore horien emaitza direla aitortzea. Alta, delako adostasun horrek (*interactionist consensus*) zehaztasun eta definizio gabezia nabarmena du; aditu askoren arabera, ez du benetan errotiko dualismorik gainditzeko, baizik eta, ostera, interakzioaren bi aldeak indartzen.

Orain dela urte batzuk, Evelyn Fox Keller irakasleak, *The Mirage of a Space between Nature and Nurture* (Duke University Press, 2010) liburu bikainean, naturaren eta hazkuntzaren arteko balizko espazio baten ispilatze edo ilusioari buruz dihardu. Existitzen ez den bereizketa (*space*) horren ezaugarriak eta erabilerak salatzen ditu, eta bultzada eta iraunkortasuna nondik datozkion azaltzen du.

Badago hor puntu logiko eztaba daezin bat: elkarrengandik independenteak ez diren kausak eta modu korapilatsuan (*entangled*) elkarre ragiten dutenak ezin dira analizatu. Hau da, kontzeptualki ezinezkoa bihurtzen da gertaera indibidual baten kausa bakoitzari balio kuantitatibo zehatzak esleitzea (ez bada Kellerrek zehazten dituen arlo eta baldintza mugatu eta jakinetan, ezberdintasunei eta populazioei buruz dihardugunean).

Naturaren eta kulturaren arteko harremana dela eta, Azurmendik ez die zertan erantzun, esate baterako, gizakiaren gogoak kulturak osatzen duen *blank slate* bat dela pentsatzen dutenen aurka suspertu diren salaketa naturalistei. Joxek beti jakin izan du ez garela aingeruak, gizakia «ez dela tabula rasa bat» (GAHD, VIII). Hala ere, ez da biologizista bat izan ere, beti hartu izan duelako kontuan garapenaren eta kulturaren eragina (konstituzio irekia). Interakzioa, gainera, dagoeneko esparru biologikoaren barruan bertan gertatzen dela konturatzen da.

Bestalde, interakzionismo auzian, haren posizioa ere sendoa da, zeren eta abiapuntua, hori bai, biologikoa da: hau da, organismo bat gara, animalia. Ez dira gainjartzen diren bi faktore. Kultura, gure gizatasuna, oinarri biologiko batetik etendurarik gabe (ispilatzezko espaziorik gabe) eraikitzen da. Batez ere oinarri biologiko horren hasiera-hasierako konplexutasuna onartzen duelako, azpimarratzen duelako.